



l'espagnole créait le GAL



Jose Antonio URRUTICOECHEA
1,72, fuerte, pelo castaño y ojos
achinados



DES photos d'identité venues de France pour ajuster le tir. Le 21 mai 1984, l'hebdomadaire madrilène *Cambio 16* publie une longue interview de membres du GAL. Pour prouver qu'ils sont de vrais «pros», ces messieurs transmettent aux journalistes 14 fiches sur leurs futures cibles. Coïncidence fâcheuse pour les services officiels français, deux de ces photos sont identiques à celles que deux réfugiés ont remises à la sous-préfecture de Bayonne lorsqu'ils y ont

demandé leurs papiers. L'une des fiches reproduite par *Cambio 16* concerne Lasa Mitxelena-Txikiardi. L'autre est celle de Josu Urruticoechea-Terera. Le 26 septembre 83, la sous-préfecture de Bayonne remettait à Josu un récépissé de demande de carte de séjour dont il avait lui-même fourni la photo. Agrafée sur ce document (1), elle va franchir la frontière et se retrouver sur la fiche du GAL (2) reproduite par *Cambio 16*.

LA CHRONIQUE MENSUELLE DE

TXILLARDEGI

Ardatzera

ORDIZIAN izan naiz egun goizean. Euria ari zuen erruz: ezin esan eguraldiak "kilometro" en antolatzaileei mesede egin dienik. Eta, halere, hura oste gaitza! Haiek gazte andanak! Itsatsi egin da herri honetan euskararen kontzientzia, dudarik gabe; "gure" (???) instituzioetan eta alderdian horrelakorik oraingoz gertatu denik ezin badaiteke ere. Frankismoa eroriz geroztik ikastolak (eta euskal irakas-kuntzak, oro har) Eusko Jaurfari-tza izenokotik jasan duen kolperik gogorrena hartu ondoren, harrigarria ere bada euskaltzale munduak erantzun sendo hori gaur Ordizian eman izana.

galtzeko beldurrak azkarturik dudarik gabe, bi hildakoen eskandalo historiko horrek, ez du herrian (aparato politikoetatik ez genuen deusik espero; eta pozgarri izan zaigu EAre jokabide parlamentarioa, basamortu betean) erantzun harrigarriegirik lortu. "Pakto"koen kanpaña lotsagalduean ondorioz, jende gehiegik eutsi dio lanari; "violento" ei jokoa ez egitekotan... Inguramendu politiko ustel honetan oporrak porrot borobila ez egitea, garaitzapeña ere bada. Egia. Baina herri honetan orain dela urte batzuek gertatzen ari den eskandalo eta traizio ilara azkengabea, besterik espero zitekeen komisarian gizaseme bat eta emakume baten heriotza asaldagarrien ondoren.

Anestesiak zurrunduta...

Horretan gaude, ordea; eta ez du balio geure burua engainatzea. Herri hau, honenbeste zafrada eta ostikoren ondoren, anestesiak zurrunduta dago. Eta ezintasun etsiari datzekion zinismoa ari da gailentzen, ondikotz, gero eta maizago. Herri Batasunak honetaz jabetu behar du. Ez da egia herri honetan abertzaleok nagusi garenik. Herri honetan abertzaleok ez gara sekula nagusi izan. Etan orain ere ez. Dauden abertzaleak Herri Batasunean daude, gutxi gorabehera (Hegoaldeaz ari naiz); Eusko Alkartasunean mordoska bat egon badaiteke ere. Eta horrek ondorio larriak ditu: Herri Batasunak ezin dezake jokabide alderdikoirik eraman. Zenbaiti agian gogoko ez bazaio ere, Herri Batasunak ardatzera jo behar du; praktikan Hegoaldeko indar abertzale bakarra delako. Eta ardatz hori zertsu den garbi dago. Telesforo Monzonek urte luzetan barrena nortu zuen abertzale ororen programa minimoa: *independentzia*.

Herri Batasunak ardatzera jo behar du

Gainerako guztia, gaur eta gauden honetan, bigarren mailan utzi behar da, edo gerorako. Herri Batasunak ez dauka gaur kolore "politiko"rik hartzerik; bakarrik gelditu baita proiektu nazionalaren defentsan. Eta bere eginkizuna abertzale guztien bideraketa baita. Herri Batasunak, ene ustez, ardatzera jo behar du; gaur egun zama alferrak diren ideiak eta proiektuak alde batera utziz. Gure ardatza ezin daiteke izan ukabila eta larrosa. Gure ardatza ezin daiteke gau bandera beltza izan. Eta "socialisme réel" delakoaren sinbolo den bost puntatako izar gorria ere ez. Gure ardatza hau da: burujabetza; eta burujabetzarako bide horretako abiaburu, autodeterminazioa.

Hau errotik sinestsi eta mamitu arte, gaizki ibiliko da euskal mogimendu abertzalea; eta maingu egongo da Herri Batasuna bera. Munduan, ezkerrean, Euskal Herrian bertan, ikusten dugun krisi gaitzak, hau idarokitzen du: abertzaleok ardatzera.

Proiektu abertzaleari uko


Alderdien desbideraketen eta saldukerien gaitetik, horra hor mogimendu abertzalearen oinarri soziologiko sendoa, oso nabarmenki gazte jendez oratua; eta horra hor ere, are lotsagarriago agertzen, irakaskuntza "autonomikoa" oraindik Buesa-ren kastako jendilaje anti-euskaldunen eskuetan tinko eta harropuz egotearen saldukeriaren tamaina. Espainiar legetasunaren defentsan buru-belarri sartu direnak (eta PNV a bereziki, esan beharrik ez dago), guztiz agertzen dira ekimen abertzale guztien kontra. *Egunkariak* hiru urte darama laguntza ofizialik gabe. Autodeterminazioaren bultzada historiko hura, freinatua dago lotsagabeki; ahantzia, hobe. Eta abar luze bat.

Hitz batez: tramankulu "autonomikoa" trabatu diren instituzio eta alderdiek, biziirik eta indartsu datorren olde abertzaleari bizkar emanez, uko egin diote osoki proiektu abertzaleari berari. Hau oraindik ere ikusi nahi ez duen itsuaz, zer esango? Euskadiko ezkeretik jaigutako Eu.E. mini-alderdiak irakasgai argitsu bat eman digu aste honetan: Garaikoetxeagandik urrunduz, "Pakto" an sartzeko gogoaz azaldu du... Eusko Alkartasunak, bide beretik, bere jatorritik ezin urrundurik, PNVra hurbiltzeko asmoa berretsi du egun hauetan bere diputatu bakarraren ahotik...


Abertzaletasunaren defentsa

Herri Batasuna, hitz batez, *bakar-bakarrik* gelditu da Hegoaldean abertzaletasunaren defentsan. Hau aspaldidanik ari da mamitzen; baina gero eta garbikiago agertzen da. Herri Batasunak, hitz batez, erantzukizun larria du orain Euskal Herriaren aurrean. Eta nik orain abertzale gisa eta Herri Batasuneko kide gisa emango dut neure iritzia argi-eta-garbi.

Komisariatari hildako bi aberkideen kasoan ikusi den bezala, gure bakardade politiko horri, euskal gizartearen "anestesia" erantsi behar zaio. Baita irakaskuntzaren alorrean ere, lanpostua



SANTI BROUARD, député de Herri Batasuna, assassiné dans son cabinet médical de Bilbao, le 20 novembre 1984. Le GAL a aussi sévi outre-Pyrénées. Un autre député d'HB, Josu Muguruza, sera assassiné le 22 novembre 1989 à Madrid par un succédané du GAL, le GANE.



LE juge Michel Svahn (au centre), qui préside la chambre d'accusation de la cour d'appel de Pau le 21 juin 1984, remet en liberté 10 personnes accusées de faire partie du GAL. L'un d'eux, Khlar, détenait une lettre postée en Espagne et contenant adresses, plans et renseignements précis sur les réfugiés basques. Le 16 juin, le même juge libérait l'ancien légionnaire Pedro Sanchez (inculpé pour avoir participé à l'enlèvement de Secundo Marey par le GAL): «son maintien en détention était inutile pour l'instruction». Le juge Svahn était membre du syndicat d'extrême-droite APM, association professionnelle des magistrats, dont la Le Vert est cofondatrice.